Makroekonomia 2020eko Urtarrilak 23 (31 taldea)

[redacted]oldata ekuazioa eman[redacted] W = [redacted] – 0,80[redacted]
Izena eta abiz[redacted] a r[redacted]

1. (2,5 puntu)Eskaintza agregatuak (SA) eta eskari agregatuak (DA) osatzen duten herrialde itxiaren eredu makroekonomikoa aintzat hartuta, bertako gobernuak zergak jaisteko erabakia hartu du (politika fiskal hedakorra). Kontuan hartuta DA eskari agregatuaren ekuazioa $Y = Y\,(M/P, G, T)$ dela eta SA eskaintza agregatuarena ondokoa $P = P^i\,(1 + \mu)\,F\,[\,(1 - Y/L)\,, z\,]$:

1.1. i) Zein merkatutatik abiatuta eraikitzen da eskaintza agregatuaren goiko ekuazioa eta zein funtziok osatzen dute ekuazio hori?

Eta ii) Zein merkatutan oinarritzen gara eskari agregatu orokorra (DA) eraikitzeko?

1.2. Erakuts ezazu irudien bidez (IS-LM eta DA-SA erabilita) eta idatziz azaldu zein den zergak (T) jaistearen eragina produkzio-mailan, prezioetan, interes-tasan eta inbertsioan, epe laburrean eta epe ertain/luzean (irudiak erabili eta hitzez azaldu zein den epe laburretik epe luzerako doikuntza prozesua).

2. (2 puntu)

i) Ondoko taulako zein herrialdek du… …kata… …ba… …zergatik?


Inbertsioa eta Aurrezkia 2016 (BPGaren %)

Herrialdea	Aurrezkia (BPGaren %)	Inbertsioa (BPGaren %)
Alemania	27	19
Argentina	14	16
El Salvador	12	14
Erresum Batua	13	17
India	32	30
Japonia	27	24
Maroko	27	31
Senegal	16	26

Iturria: Munduko Bankua

ii) Zertan bereizten dira kanbio-tasa nominala eta kanbio-tasa erreala?.

iii.Kontuan hartuta XN(ε) = S – I (r) ekuazioak ε kanbio-tasa erreala determinatzen duela eta S emanda datorrela (herrialde barneko politikek aldatzen dute) eta I interes-tasa errealaren menpekoa dela: nolako eragina du Guatemala bezalako herri txiki bateko txanponaren kanbio-tasa errealean(ε) eta merkataritza balantzan (XN) munduko interes tasa errealen (r*) jaitsiera batek(Beheko iruditik abiatuta eman ezazu azalpena).



3. (puntu 1)Ondoko soldata ekuazioa emanda: $W = P(1 - 0{,}80u)$, non u langabezi tasa den:

a) μ =15% bada, zein da soldata erreala eta langabezi tasa naturalaren balioa. Grafikoa ere erabili oreka irudikatzeko.

b) Petrolioaren prezioa jaisten da. Lehengo grafikoa erabilita aldaketa honen ondorioa azaldu eta azter ezazu soldata errealean zein langabezi tasa naturalean petrolioaren prezio jaitsiera horrek dituen ondorioak.

4. (2 puntu) Ekonomia itxi bateko Phillips-en kurbaren ekuazioa ondokoa da:

$\Pi_t - \Pi^i{}_t = 0{,}1\text{-}2u_t$

Demagun $\Pi^i{}_t = \theta\, \Pi_{t-1}$ (inflazioaren igurikapenak aurreko urteko inflazioaren oinarriaren gainean eraikitzen dira)eta hasiera batean$\theta = 0$ dela eta desenplegu-tasa desenplegu-tasa naturalaren berdina dela. "t" urtean gobernuak desenplegu-tasa %3ra jaistea erabakitzen du eta maila horretan modu iraunkorrean mantentzea erabakitzen du.

a. Kalkulatu helburu hori lortzeko ondoko urtetako inflazio-tasaren maila: t, t+1 eta t+2

b. Zer gertatzen da $\theta = 0$ egoeran Phillips-en kurbarekin eta jendeak prezio igoeren inguruan duten igurikapen edo espektatibekin.

c. Demagun orain t+3 urtean, $\theta = 1$ dela (hau da, 0-tik 1-era igotzen delaθ faktorea). Eta gobernuak oraindik desenplegu-tasa %3 mailan mantendu nahi duela: kalkulatu t+3 eta t+4 urtetako inflazio-tasak (oharra: t+2 urteko inflazio-tasa a) atalean kalkulatu duzuna da).

d. Zergatik igo daiteke θ modu horretan?

e. Desenplegu-tasa naturala:

i. Kalkulatu

ii. Epe luzean desenplegu-tasa naturala aldatzen da?. Zergatik?